

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/3/5 | 319



- ⌚ Amezketako herri zentroa eraikitzen
- ⌚ Amalur jardunaldiak basamortuei buruz
- ⌚ Metabolismoari buruzko galderak
- ⌚ Jokin Larrazari elkarrizketa
- ⌚ Tolosaldea Mahala TT denboraldi berrian
- ⌚ Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...

Emakumeen
arte aurrez aurre

- ⌚ Txelo Romeori elkarrizketa

GOITIK

- Web orriak • Publizitate kanpainak • Logotipoak • Irudi korporatiboa
- Liburuak • Aldizkariak • Rotulazioa • Ilustrazioak • Multimedia

Ikuspegi zabala bezeroaren eskura

Goitik, tolosan kokatzen den diseinu grafiko enpresa bat da. Esperientzia handia duten programatzaile, ilustratzaile eta diseinatzailez osatua. Azken teknologiaz baliatuz lanaren pausu guztiak, ideiarene sorreratik amaitzeraino, egiteko gaitasuna dugu. Kalitatezko lan eta zerbitzua zure eskura. Sar zaitez gure webgunean eta azken lanen ereduak ikusi ahal izango dituzu. Ongi etorria.

Jar zaitez gurekin harremanetan:

943 67 08 19

goitik@goitik.com

www.goitik.com

Korreo, 45 - Behea - 20400 Tolosa - Gipuzkoa

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 587



AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

ARIKETA FISIKOA

HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

kinéi

ILEAPAINDEGIA ESTETIKA SOLARIUM
Oria kalea 16 behea - Tel. 943 65 58 37

EZKONGAIENTZAT BONOAK 2010

EZKONGAIENTZAT BASIKOA

EMAZTEGAIA 180€

ORRAZKETA, MAKILLAJEA (PROBA BARNE), MANIKURA,
BEKAINAK ETA GOIKO EZPAINA.

SENARGAIA 60€

MOZKETA ETA ORRAZKETA (EZKONTZA EGUNEAN), "FOR
MEN C-PLUS ENERGY" AURPEGI TRATAMENTUA ETA BE-
KAINEN DISEINUA.

EZKONGAIENTZAT LUXUZKOA

EMAZTEGAIA 220€

ORRAZKETA ETA MAKILLAJEA (PROBA BARNE), AURPEGIKO
TRATAMENTUA, MANIKURA, BEKAINAK ETA GOIKO EZPAINA.

SENARGAIA 100€

MOZKETA ETA MAKILLAJE TOKEA (EZKONTZA EGUNEAN),
"FOR MEN C-PLUS ENERGY" AURPEGI TRATAMENTUA,
BIZKAR MASAJEA, MANIKURA ETA BEKAINEN DISEINUA.

EMAZTEGAIA TOTAL OUTLOOK 250€

ORRAZKETA ETA MAKILLAJEA (PROBA BARNE), AURPEGI
TRATAMENTUA, MANIKURA, PEDIKURA, DEPILAZIOA
(HANKA OSOAK, INGLEAK, BESAPEAK, BEKAINAK ETA
GOIKO EZPAINA)

EMAZTEGAIA COMPLET 300€

ORRAZKETA ETA MAKILLAJEA (PROBA BARNE), AURPEGI
TRATAMENTUA, GORPUTZERAKO SPA TRATAMENTUA,
SPA MANIKURA, SPA PEDIKURA, DEPILAZIOA (HANKA
OSOAK, INGLEAK, BESAPEAK, BEKAINAK ETA GOIKO
EZPAINA)

5 SOLARIUM
SESIO DOAN





Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketak, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irua, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
 diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Emakumeen artearen erradiografia

1927an, Virginia Wolf idazle ingelesak emakumeek literatura egiteko leku bat behar zutela aldarrikatu zuen. Ia mende bat geroago, aldarrikapen horrek bizirik dirau, eta literatura ez beste kultur arloek ere bere egin dute Wolf-en tesia. Emakume artistek euren artea erakusteko espazio urria dute egun. "Aurrez aurre, emakumeak protagonistak" erakusketaren bidez, Tolosa eta inguruko emakume artista gazteek euren lana erakusteko lekua izango dute.

8-11. orrialdeak

Herriarentzat berebiziko garrantziarik ez duten arloetan egingo ditugu murrizketak; nagusiki diru-laguntza eta festen antolakuntzara bideratutako partidak jaitsiko ditugu. Aldiz, gizarte-laguntza saila indartu egin nahi izan dugu aurtengo aurrekontuetan.

Elkarrizketa: Txelo Romeo

16-18. orrialdeak

| | | |
|--|---|-------|
| | Iritzien leihoa: Andoni Egia eta Eider Elduainen | 4-5 |
| | Normalizazioa: Irua eta Anoetako lan mundua euskalduntzen | 6-7 |
| | Eskualdeko albisteak: Amezketak bere herri zentroa izango du | 12-13 |
| | Eskualdeko albisteak: Amalur jardunaldiak basamortuei buruz | 14-15 |
| | Koxk: Metabolismoa aldatu zait? | 19 |
| | Kultura: Jokin Larrazari elkarrizketa | 20-21 |
| | Kirol saltsa: Tolosaldea Mahala TT ilusioz denboraldi berrirako | 22-23 |



Andoni Egia

EHNE sindikatuko tolosaldeko koordinatzailea

4 Aupa jende! Zemuz seitzen deu? Ondo, ongi, eleante, eo hoy denai izurratuta eantxita, eo al dan bezela, eo askok nai baño hobeto, eo eztaikit ba, besteik gabe, protokoloik esan gabe, ba hoixe aizkenen bakoitzak nai duna esan baño eunerokok ematettun komeriei aurre itten.

Bueno, ba hoi dena esanda, gaurkon bizitzeko moduei buruz hasiko naiz arrastaka eo leku guztita allatu eziñik ibiltzeakin. Batzuk eo gehienak hola ibiltzen omen die: goiezen goiz jaiki; lanea, geo bazakaria tragatu; ahuntz xiexta in ta berriz lanea; lanetik atea eta konpromisok, enkarguk, afarie tragatu, ta afalondon oia jun ezkeo gaitz-erdi, bestetan izate bileran bat eo eztaikit ze; bilera jun, epelak aittu, txoro kontuk esaten denak hasarretu, asuntoan bertan aurrea jun beharren atzea in, ta etxea, goizaldeko ordu txikitari seuro; begik itxi ta umea nearrez,

mokoso daolako; mukik ziztu, oh... oh... oh...pare bat esan eta berriz lokartu; eta hobena allatzen ai zanen despertadorea; pi pi pi pi pi...! Altxa ta berriz lanea; ta segi ta segi eromen hortan. Miñe balinba nonbaitten pastilla "koki" bat hartu ta aurrea; miñe ez ba juten 3 hartu eunen sei aldiz begik noratu arte, ta segi ta segi!

Eromen horri eraitten dion instrumentuik handiña telefono mobilla, beti gañen behar, 24 orduz, eozeiñen dispozizioa eoteko; etxen ahazten bazu zeozen fanta inportantea sentitzea; ta hoi pasa eta batemat deika balimazu, geo kristonak aittu behar: "hi! telefonoa nun dek? Kabroia! Gustukoi bakarrrik hartzen al diek? Ta hi deika attu ta hartzen azpaik beten batek, hi re malaletxe berdinen jarriko haiz ba?" Hoi bai dala dependenzi telefonikoan gaitza!

Eromen honi eraitten dion beste bat ordenadorea, batzuk laneako ibiltzen due, besteak denboa pasatzeko, besteik gabe, email, messenjer, txat, txato ta txata! Saldu, eosu, kurioseatu, kotilleatu, famosok zeñekin ta nola ligatzen duen ikusi ta segi, ta segi!

Bezperan planak ittea re askotan alperrik da, eune aillatzen danen bete izatea eragozteizun xeblere eo xeblekerin bat gertatzea, plana atzea botatzeizuna. Pixe ittea re presaka jutegea: komunea allau botoiak askatzen hasi, botoiak eziñ ta azkenen kantzontzillok busti, ta segi, ta segi!

Ta segi, ta segi presaka!

Ta hola gabiltza. Oain krisia etorri omen zaigu. Nik ezte uste hola danik. Egoera hau zerbaitten ondorio zuzena da. Hau re asmatu in due; ezta etorri in dala. Ta oain buelta ematen ai omen zaio, nun? oaindik ne iritzin okerrera iristeko dao, ta oaindik okerrago, buelta hartzen dunen beize lengo lekua jungo da, ta segi, ta segi!

Azken baten lengon baserritar bati aitze niona, ta netzako egi konpletoa baserritarren kasun esate zuna: "lengokok baño askoz okerrago bizi dituk, errezago itten dittue lanak, baño 1000 kezka dauzkea burun bueltaka". Arrazoi guztie emateiot, ta baserrin bezala kalen re bai, denak prekupa-ziokin tope bizi gealako!

Ta hoixe. Azkenen idatzi hau re holaxe atea zait, xeble, hamar lekutan burua detela; idatzen hasi ta saltzailea atea joka; zure edukazio guztiakin bialdu ta elektrizista aberie konpontzea; harekin noala pentsu saltzailea; ta bikin naola auzokoa, ta segi, ta segi! Ta idatzia bukatzen hai naizela Galtzaunditik deika, nola ez ba, nere mobillea. Ikeatuta zuden idatzie in ote nun eo ez, normala bi aste nere atzetik deika ibilli ta geo. Bueno, ia hurrengon sentidu gehiokin eta patxada obekin zeoze hobea idaztei zueten. Oain utzi ingoizuet, bakizue, presaka naiz ta. Aio jende ta zaindu ingurue!

Mekauen la ley! 11:30 ta ni oaindik gosaldu gabe!

Ta segi, ta segi! Azkenen aurrea jun beharren atzeaka!

2010 arrazoi martxan jarraitzeko!



Lau izango dira nagusiki aurten izango ditugun aldarrikapenak. Emakumeok jasaten dugun prekarietateari aurre egiteko jarriko gara martxan, sexuaren araberako lan banaketan oinarritzen den eredu ekonomiko neoliberal eta patriarkala salatzen. Emakumeon kontrako indarkeria gainditzeko jarriko gara martxan; egunez egun jazozen diren eraso sexista nahiz erailketa guztiei ozen ezezko bat emanez. Gure eskubideak aldarrikatuko ditugu, gure sexualitate askerako eskubidea eta gorputzaren gainean ditugun eskubide sexual eta erreproduktiboena gaineko eskaerak luzatuz. Baliabide naturalen pribatizazioaren aurka abiatuko dugu martxa; gure lurren txikizioak salatuz eta elikadura burujabatzaren alde.

Eskualdeko emakume base-rritarrekin batera, emakumeek elikadura burujabatzaren alde egindako lana eta ekarpena nabarmenduko dugu bereziki Tolosan. Ikusezinak eta aldi berean hain beharrezkoak diren lan horiek ekarriko ditugu lehen lerrora. Elikadura bu-

rujabetzarena alde egindako lanak ez die etekinik ematen emakumeei ez ordain sarietan, ez eskubide sozialetan ere. Famili zapalkuntzak ere eragin zuzena du eta ondorioz, jabe goa familia buruei dagokie beti, gizonezkoiei. Emakume nekazari eta abeltzainek berezko dituzten lanei, etxeko lanak, etxearen zaintza eta haur zein adinekoen zaintza gehitu behar zaizkie. Denak ere ikusezinak eta doakoak diren lanak, pertsona guztien bizi baldintzen ongizaterako beharrezkoak direnak, baina errekonozituak ez direnak.

2010 arrazoi baino gehiago ditugulako martxan jarraitzeko, ekingo diogu aurten ere emakumeen elkatasunean oinarritzen den mundu mailako ekimenari. Bost egunetan zehar Mundu Martxako furgoneta Euskal Herriko hainbat txokotatik pasako da. Iruñean hasi eta herrialde guztietatik pasa ondoren berriro Iruñean bukatuko da nazio mailako mobilizazio batekin. Euskal Herri osoan jasotzen diren testigantza eta irudiak ondoren Kongora eramango ditugu, urriaren 17an bertan egingo



Eider Elduaien Olazar
Tolosaldeko Bilgune Feminista

Badator Emakumeon Mundu Martxa Tolosara ere! Milaka arrazoi genituelako elkartu ginen 2000. urtean, eta mila arrazoigatik ibili ginen martxan Euskal Herrian zehar 2005ean. Oraindik ere milaka arrazoi ditugulako jarraituko dugu martxan. Besteak beste, prekarietatea, pobrezia, indarkeria, ikusezintasuna, diskriminazioa salatzen. Martxoaren 8an hasi eta 13a bitarte emakume bakoitzaren esperientziak batu eta elkatasunean, askatasunean eta parekidetasunean oinarritutako mundu berri bat aldarrikatuko dugu. Martxoaren 11n iritsiko da Mundu Martxa Tolosara.

den Mundu Martxako ekimenera.

Gure eskualdean hitzordua, martxoaren 11an arratsaldeko 18:00etan Tolosako Zerkausin. Bertan egingo dugu ongi etorria Emakumeon Mundu Martxari. Sorgiñen algarek morez tindatuko dute Euskal Herria!

Anoeta eta Irurako lan mundua euskalduntzen

6 Erabilera esparruak landu behar badira, Tolosaldeko kasuan lan munduari eman behar zaion lehentasuna erabatekoa da. Arlo honetan egingo den garapenarengandik etor daitezke hizkuntza normalizatzeko etekinik garrantzitsuenak. Izan ere, enpresa, merkataritza, ostalaritza eta jarduera ekonomikoan euskarak protagonismoa lortuko balu, normalizaziorako urrats ikaragarria ematea litzateke.

Erabilera esparruak landu behar badira, Tolosaldeko kasuan lan munduari eman behar zaion lehentasuna erabatekoa da. Arlo honetan egingo den garapenarengandik etor daitezke hizkuntza normalizatzeko etekinik garrantzitsuenak. Izan ere, enpresa, merkataritza, ostalaritza eta jarduera ekonomikoan euskarak protagonismoa lortuko balu, normalizaziorako urrats ikaragarria ematea litzateke.

Helburu hau aintzat hartuta Tolosaldea guztian ari da Gal-

tzaundi lanean, eta Anoetan eta Iruran ere urte batzuk daramatzagu helburu honekin enpresa desberdinak bisitatzen. Azken bi urte hauetan gainera, Galtzaundi eta Anoeta eta Irurako Udalen arteko lankidetzak estutu egin da sinatutako hitzarmenei esker. Hitzarmen hauen bidez, epe luze denari hasiera eman genion. Horretarako Galtzaundiko teknikariak eta Anoetako eta Irurako udal teknikariak adostutako bisita batzuk egin ziren. Azken bi urte hauetakoa lan luze baten hasiera izan zen, eta lan horri jarraipena ematea da gure helburua. Horregatik, Anoetako eta Irurako Udalekin hitzarmena berritzea adostu genuen eta orain hitzarmen horietan adostutakoa lantzeko uea iritsi da. Udalekin adostutako bisita selektibo batzuk egingo ditugu, azken bi urte hauetako lanari jarraipena emateko asmoz. Zenbat eta zein enpresa bisitatuko ditugun zehaztu dugu, eta orain bisita horiek egiten hasiko gara.

Ezin ahaztu lehenik euskara planak abian dituzten enpresak. Galtzaundi Euskara Taldeak jarraipena egingo die horiei ere,

behar duten laguntza eskainiz. Galtzaundik duen doako itzulpen zerbitzua ere beraien eskura jartzen dugu. Beharrezkoa da baliabide eta lanabesak sektoreko eragileen esku jartzea, euskararen erabilera sektorean sustatzeko ekimenak aurrera eramateko. Zentzu honetan, egun dauden zerbitzu eta material lagungarrien berri ematen diegu (hizkuntza-aholkularitza eskaintzen duten erakunde eta zerbitzuen berri, beste zenbait erakundetan arrakastaz aplikatu diren metodologiaren berri, laguntza ekonomikoaren berri, etab.). Lan hau, jakina, ezin utzi daiteke enpresen eskuetan, bakoitzak bere kabuz ahal duena egin dezan.

Hori guztia horrela izanda eta bisitatu beharreko establezimenduak udalarekin batera identifikatu ondoren, Galtzaundiko teknikaria bisitatu egiten hasiko da establezimendu hauek euskara planak abian jartzera animatuz. Establezimendu bakoitzak euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko berak aukeratutako konpromiso batzuk hartzeko aukera izango du, urte beteko epean betetze-

ko. Konpromiso txikiak izaten dira, betetzeko modukoak. Helburua ez da bat batean hizkuntza-egoera aldatzea, pixkanaka eman beharreko pausoak dira. Denbora eskatzen duen proiektua da. Konpromisoak hartzen dituzten gizarte eragileek "Bai Euskarari Ziurtagiria" eskuratze-ko aukera izango dute.

Konpromisoak hartuta dituzten gizarte eragileei ebaluazioa egingo diegu, iaz hartutako konpromiso horien betetze-maila ebaluatu ahal izateko. Anoetan badira 9 enpresa konpromisoak dituztenak: Anoeta karrozeria, Itxasi komertziala, Opel Giauto, Goya harakintza, Zurriaran iturgintza, Oria elektrizitatea, Tarte,

Focus argazkigintza, Naturgas eta Utensilioz Latz hain zuzen ere, eta Iruran ere beste 9: Idrá Nordikoak, Ibai Ondo auto-garriketa, San Migel garraioak, Baso-Lur, Alonso txatarrerria, Alonso burdin eta metalak, Urkola fruituak, Ipar Auto tailerrak eta Eki Irazusta ferraketa hain zuzen ere.

Datorren astetik aurrera, bezaraz, Irura eta Anoetako enpresek alkateak sinatutako gutun bana jasoko dute Galtzaundiko teknikariak egingo duen lanaren berri emanez, eta behin gutun hori jaso ondoren, Galtzaundiko teknikariaren deia jasoko dute bisita baterako hitzordua jartzeko.



bai euskarari zozketako saridunak


Aurreko bi zozketetan zenbaki saridunak atera ez zenez, Galtzaundi Euskara Taldeak bere bazkideen artean zozketatu ditu Bai Euskarari Zozketako sariak. Ondoko hauek izan dira zortedunak:

Bidaide bidaia agentziaren eskutik gau bat eta gosaria bi laguntzat Orduñako bainu etxean: *Antonio Labayen Celaya*.

Afaria bi laguntzako Adunako Zabala sagardotegian: *Xabier Maiza Aizkorbe*.

Afaria bi laguntzako Astigarragako Iretza sagardotegian: *Antton Imaz Goikoetxea*.

Saridunak jar daitezela Galtzaundirekin harremanetan (Telf: 943.65.50.04. Helb: Nafarroa Etorbidea, 6-behea, Tolosa) saria jaso ahal izateko. Zorionak!

Galtzaundi  10eko martxoak 5



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

COMERCIAL



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

ANTZA

Somos
el tiempo
que nos
queda

8



Aranburu Jauregiari bizia emango dio "Aurrez aurre, emakumeak protagonista" erakusketa interaktiboak apirilaren 10era bitartean.

Emakumeen artearen erradiografia

Leire Zubeldia

1927an, Virginia Wolf idazle ingelesak emakumeek literatura egiteko leku bat behar zutela aldarrikatu zuen. Ia mende bat geroago, aldarrikapen horrek bizirik dirau, eta literatura ez beste kultur arloek ere bere egin dute Wolf-en tesia. Emakume artistek euren artea erakusteko espazio urria dute egun. "Aurrez aurre, emakumeak protagonistak" erakusketaren bidez, Tolosa eta inguruko emakume artista gazteek euren lana erakusteko lekua izango dute. 20 artista gazteren artelanak bilduko dira. Horretaz gain, mahai-inguru, hitzaldi, antzerki eta tailer ezberdinek ere Aranburu Jauregian hartuko dute lekua. Erakusketa bizia izango da, emakumeen artea bera bezala.



10



“Maiz, erakusketa aretoak ez dira leku biziak izaten: koadroak paretean zintzilikatu eta kito. Guk bizitza eman nahi diogu erakusketari; bizia sortuko dugu aretoan”. Era honetan aurkeztu digu Josebe Iturrioz Tolosako Berdintasun teknikariak eta “Aurrez aurre” erakusketako komisarioak martxoaren 3an abiatu zen ekimena. Baina nola eman bizia koadroz jositako areto bati? “Ez da erakusketa soila izango”, jarraitu du, “20 emakume artista gazteren lanak bildu ditugu, baina horretaz gain beste bi gune daude: bat “arte okupa” egiteko da, eta bertan, norberak egindako artelanak jarri ahal izango dira; beste gunea bisitariak ekarpenen bat egiteko egokitu dugun murala da”. Areto berean egingo dira “emakumea eta artea” gaia jorratuko duten mahai-inguru, antzerki saio, hitzaldi, dantza emanaldi eta tailerrak. “Erakusketan parte hartu duten artistak ekintza hauetan presente egongo dira euren lana aurkezteko. GKO Gallery-ko Ibai-k graffiti bat egingo du Aranburu Jauregiaren barruan, eta Carol-ek mural bat margotuko du kalean”. Azken hauek erakusketan parte hartuko duten artistetako bi dira. Kontua parte hartzea da, erakusketari forma ematea. Horretarako deia luzatu dute Berdintasun sailetik.

Artista gazteen aldeko apustua

“Aurrez aurre” erakusketan parte hartu duten artista guztiak 25 urtez azpikoak dira, errekonozimendurik jaso ez dutenak, eta arte galerietara iristeko aukerarik izaten ez dutenak. “Apustu handia egin dugu. Virginia Wolf-ek bere tesian zihoen, emakumeok ez dugula literatura berezitu bat egiten, behar duguna, literatura edo artea egiteko tokia dela. Logika horrekin, artista hasi berriei aukera eman nahi izan diegu”. Hasiberria izateak ordea ez du esan nahi erakusgai jarri diren lanak kaxkarrak direnik. “Artelanak ederrak dira, eta bata bestearekiko oso ezberdinak gainera”. Sortzen ari diren artistak dira, eta gazteekin lan egiteak, egun egiten den artearen erradiografia bat egitea ahalbidetuko du Iturrioz-en iritziz. “Telak, audiobisualak, lan digitalak eta e.a. ditugu. Horrek ere bizitasuna emango dio erakusketari”.

Gazteak izateaz gainera, artista ugari Tolosa eta inguruko herrietakoak dira: Eli Garmendia (Tolosa), IxuriLuze (Tolosa), Susana Segurola (Tolosa), Vanessa Alzate (Ibarra), Ainitze Velaz (Ibarra), Izaskun Lazkano (Tolosa), Nagore Amenabarro (Amezketeta) eta Izaro Altuna (Tolosa). Gipuzkoa, Espainia eta munduko herrialde ezberdinetako artistak ere hurbilduko dira: Es-

Virginia Wolf-ek bere tesian zihoen, emakumeok ez dugula literatura berezitu bat egiten, behar duguna, literatura edo artea egiteko tokia dela. Logika horrekin, artista hasi berriei aukera eman nahi izan diegu”.

tela Garcia (Bartzelona), Ana Belen Jarrin (Ekuador), Maider Nuñez (Donostia), Marta Nuñez (Donostia), Carole Bielicki (Frantzia), Savage Girl (Bilbo), Francisca Ribeiro (Lisboa), Camilade Maffei (Italia), Ana Elena Pena (Murtzia), Nacion Scratches (Bartzelona), Majo Pulido (Galizia), Maider Aldasoro (Donostia) eta Julieta Metralleta (Donostia).

Mahai-inguruak erakusketa janzteko

Erakusketan parte hartu duten artistak gazteak izatean, euren sormen lanak oso intuitiboak dira. “Lan hauen diskurtsoa osatu eta edukiz betetzeko artea eta feminismoaren munduko adituak ekarriko ditugu. Mahai-inguruaren bitartez egingo dute euren ekarpena”.

Gonbidatuetako bat Arakis izango da: “Montermosoko zuzendaria da. Kazetaritzan



litentziatua eta doktorea da. Bere tesia emakumea, artea eta feminismoaren ingurukoa da. Bera izan da, Euskal Herri mailan artearen alorrean kuotak erabili dituen lehenengoa. Kuotak erabili ditu Montermoson emakumeak sartzeko. Bere lana funtsezkoa izan da, nazioarteko emakume artista asko ekarri baititu hona. Lan mamitsua egin du informazio guzti hori berreskuratzen". Arakis-ekin batera Lourdes Mendez arituko da. "Artea eta feminismoa" mahai-inguruan. "Azken hau izan da Arakis-en tesia zuzendu duena. Antropologian eta Artean katedraduna da; bakarria Euskal Herrian. Ikerketa asko egin ditu, eta liburu asko publikatu".

Beste aurpegi ezagun bat Isabel Franc kataluniarrarena izango da. "Isabel idazlea da.

Nobelak idazten ditu, eta istorio hauetako protagonistak lesbianak izan ohi dira. Baina Franc-en berezitasun nagusia ez da hori: bikaina da humorea erabiltzen". Hain zuzen ere, "Humorearen artea" hitzaldia eskainiko du. "Granadako jardunaldi feministak hamar urtez behin egiten dira. Bada, azkeneko edizioan bera izan zen plenarioan jardunaldien hasierako hitzaldia eman zuena. Berak bakarrik izan zuen aukera hori. Hortik atera kontuak zenbaterainoko balioa duten Franc-en hitzek".

Bigarren mahai-inguruan Maria Mur-ek eta Estibaliz Sadaba-k hitz egingo dute "Praktika artistikoa – praktika feminista" izenburupean. "Lehena artista ezaguna da Euskal Herrian. Ez ditu koadroak egiten, lan kolektiboak egiten ditu. Bigarrena "Erreakzioak" taldeko kidea da.


Aurrez aurre, emakumeak protagonistak

Aranburu Jauregia

- Martxoaren 3tik apirilaren 10era: Erakusketa interaktiboa
- Martxoak 4: "Artea eta feminismoa" mahai-ingurua, Arakis eta Lourdes Mendez. 18:30ean.
- Martxoak 5: "Kalean margotzen ondo pasatzen dut" arte tailerra Carole Bielicki-ren eskutik, 17:00etan.
- Martxoak 6: Higa antzerki taldearen "Ene plotsa handia eta biok" antzezlan, 20:00etan.
- Martxoak 15: Afrika mendebaldeko Dantzak Tolosako jabekuntza eskolaren eskutik, 18:30ean. Ondoren, "Humorearen artea" hitzaldia Isabel Franc-en eskutik.
- Martxoak 16: "La imagen mas próxima" tailerra Ana Belen Jarrín artistaren eskutik, 16:30ean.
- Martxoak 17: "Praktika artistikoa – praktika feminista" mahai-ingurua Maria Mur eta Estibaliz Sadabaren eskutik 18:30ean.

Talde honi esker, 80. hamarkadako emakumeen artelanak berreskuratzen dira".

Mahai-inguru eta hitzaldi hauen artean, jabekuntza eskolako dantza afrikarren emaldia eta HIGA antzerki taldearen antzezlan taularatuko dira Aranburun.

Honenbestez, artea eta feminismoaren alorrean Euskal Herri mailako pertsonarik adituena izango dira Tolosan. Beraien ekarpenaren bidez, emakumea eta artearen arteko ezkontzaren erradiografia bat egitea da helburua. 



Aierbenea edo Juan Lopez -enea eraikina
izango da Amezetako herri zentroa

Urtea amaitzerako martxan Ar

12 Legealdiaren hasieran Udalak bere lehentasunen artean sartu zuen herri zentro berriaren proiektua. Kokapena zehaztu, diru-laguntzak lortu eta etxea erosi ondoren, eraikuntza lanak hasiak dira, eta urtea amaitzerako lanen lehen fasea (beheko solairuari dagokiona) amaituta egotea aurreikusten dute. Herri zentro berriak areto nagusi bat, eguneko zentroa, etxebizitza tutelatuak eta liburutegia hartuko ditu bere baitan, besteak beste.

Amaia Goikoetxea

Oraindik ez diote izen ofizialik jarri, baina Amezetan gaudela kontuan hartuta ez dago gehiegi pentsatu beharrik gutxi gorabehera kontuak nondik jo dezakeen asmatzeko: Pemando Amezetarra. Horixe izan liteke Amezetako herri zentro berriaren izena. "Ez dago guztiz erabakita, baina batzordean proposatu zen eta nahiko harreara ona izan zuen", azaldu digute Jexux Iñurritak eta Satur Zabalak, Udaleko alkatea eta zinegotzia, hurrenez hurren.



Amezetako herri zentroa eraikin honetan egokituko da.

Izenik oraindik ez, beraz, baina gainontzekoa nahiko lotuta eta zehaztuta dagoela esan liteke. Herriaren erdi-erdian dagoen Juan Lopez-enea edo Aierbenea etxea da herri zentro izango dena. Zentro berriak hainbat zerbitzu kultural eta sozial jasoko ditu bere baitan, eta horretarako bigarren solairu bat erantsiko diote. Laurehun urte baino gehiago dituen eraikin honen solairu bakoitza 300 metro karratukoa da; beraz, eraikiko den solairu berria kontuan hartuta, 900 metro karratuko espazio baten aurrean geundeko. Dagoeneko hasita dauden lehen faseko lanek sei hilabete inguru iraungo dutela aurreikusten du Udalak, eta sortu litezkeen atzerapenak kontuan izanda, 2010a buka-

terako herri zentroa inauguratzeko moduan izango dira.

Aspaldikoa du Udalak herriaren horrelako gune bat eraikitzeko asmoa. "Legealdi honetan sartu baino lehen Agenda 21en baitan hausnarketa bat egin zen, eta bertan herriak zituene behar batzuk agertu ziren: eguneko zentroa, areto nagusi bat... Herriko eragile ezberdinek behin baino gehiagotan aldarrikatua zuten areto baten beharra", azaldu digute Iñurritak eta Zabalak. "Gure taldean lehentasuna eman genien behar horiei, argi geneukan lehenbailehen erantzun bat eman behar zitzaiela. Beste bi udal taldeekin hitz genuen eta eurak ere uste berekoak zirela jakin genuen; horregatik adostu genuen hiru taldeen artean

mezk**etako** herri zentroa

herri zentroarena gure proiekturik garrantzitsuena izatea”.



Behin erabakia hartuta, zenbait herritako ereduak ikusi zituzten; aipaturiko hiru udal taldeez gain, herriko gazte batzuek ere hartu zuten parte bisita horietan. Eredu ezberdinak ikusi ondoren, hainbat aukera jarri ziren mahai gainean. Alde batetik, egiturari dagokionez, hasiera batean eraikinaren erdia behar kulturalentzat izango zela aurreikusten zen, eta beste erdia behar sozialentzat. Bestetik, kokapenari dagokionez, herri zentroa udaletxearen atzealdean dauden lurretan eraikitzea aukera egokia ote zen aztertu zuten, baina azkenean proposamen hau baztertu egin zuten, hainbat gabezia baitzuten: besteak beste, aipatu lurrak maldan daude eta herriko plazatik urrun samar geratzen dira. “Gauzak horrela, inguruko etxeak begiratzera jo genuen, eta Aierbenea etxeko jabeekin eraikinaren salerosketa negoziatzen hasi ginen”.

Diru dezente eskatzen zuen etxe haren erosketak, baina Udalak garbi zuen behin herri zentro bat egiten hasiz gero “txukun eta egoki egin behar zela”. Beraz, aurrekontua asko igotzen zenez, diru-laguntzak eskatu behar izan ziren. “Zorte handia izan genuen, Gipuzkoa-

ko Foru Aldundiko Landa Gipuzkoa 32 egitasmotik diru-laguntzak jaso baikenituen 1000 biztanle baino gutxiagoko herria izateagatik. Aldundiko Ongizate sailetik ere jaso genuen zerbait, baita Eusko Jaurlaritzako EREIN programatik ere, eta Enirio-Aralar mankomunitatearekin lorturiko hitzarmen batek ere eman zuen fruiturik”. Laguntza horiez gain Udalak 360.000 eurotan zorpetu behar izan du eta horrekin lanen lehenengo fasea martxan jarzea lortu du.

2.600.000 euroko aurrekontua

Eraikuntza lanen lehen faseak honakoa jasotzen du bere baitan: Juan Lopez-enea edo Aierbenea etxearen erosketa, bigarren solairua eraikitzea, hormak txukuntzea eta beheko solairuan areto nagusia, kafetegia, komunak eta igogailua atontzea. Lehen fasea amaitzean zentroa inauguratzeko asmoa du Udalak, beraz, urtea amaitzerako areto nagusia eta aipaturiko beste zerbitzuak erabilgarri egongo dira. Bigarren fase baterako geratuko lirateke eguneko zentroa eta etxebizitza tutelatua (lehenengo solairuan) eta liburutegia, ludoteka, KZgunea eta bileretarako gelak (bigarren solairuan). Lehen faseak

 Herri zentroa gure proiektu garrantzitsuena izatea erabaki genuen. 

2.200.000 euroko aurrekontua du, eta bigarrenaren 400.000 euroekin, 2.600.000 euro kostako da herri zentroa.

Bigarren faseko lanak noiz hasiko diren ez du zehaztu Udalak, besteak beste, hura finantziatzeko diru-laguntzak lortu beharko baitira ezertan hasi baino lehen. Alabaina, lehen fasea amaitu ostean konputuak nola geratzen diren ikusi eta aukerarik balego, baliteke zerbaitekin aurrera egin ahal izatea. “Lehenengo fasea amaitu eta aurrekontuak bigarren faseko zerbaitekin hastea ahalbide-tuko balu liburutegiarekin hasiko ginatke, hura baita premia larriena duena”, azaldu digute Iñurritak eta Zabalak. “Egungo liburutegiak batzuetan ludoketa funtzioa ere betetzen duela dirudi, eta lasaitasuna eta isiltasuna bermatuko dituen espazio bat atontzea beharrezkotzat jotzen dugu. Horregatik, kostua handiegia ez balitz lehen fasea amaitu ondoren liburutegiarekin hasiko ginatke”.

Beti Alai
jatetxea 

Garaian garaiko janariak
eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositu beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garbati, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Amalur jardunaldien V. aldiak munduko basamortu ezberdinetara bidaiatzeko aukera emango du

Basamortua, har

Zer iradokitzen dizu “basamortua” hitzak? Hondarra, dunak, oasia, beduinak, kaktusa, isolamendua, hareazko erlojua. Burura etorritako erantzun guztiak baino gehiago da basamortua: hareaz gain, giza bizitza eta fauna dago basamortuan. Euren bihotz-begiekin ikusi eta sentitu dute guzti hori Sergio Fernandez Tolosa, Ander Izagurre, Josep M^a Palau eta Cristina Morató bidaiariek. Euren esperientzia kontatuko dute martxoaren 15etik 26ra arte iraungo duten Amalur jardunaldietan.

Erredakzioa

V. aldia izanik, Amalur jardunaldiko antolatzaileek zerbait berezia prestatu nahi izan dute. Ildo horretatik, aurreko edizioetan baino hitzaldi bat gehiago antolatu dute. Bestalde, entzuleek eskatzen zuten bidaiatzen ikasteko tailerra izango da aurten. “Iaz inkesta bat egin genuen publikoaren nahiak ezagutzeko. Era independentean bidaiatzen ikasteko tailerra izan zen eskari nagusietako bat”, azaldu du Kike Zinkunegi antolatzaileak.

Aur-
tengo
beste
bere-
zita-
sun

bat aukeratutako gaia da: “Aurreko edizioetan herrialde jakin batzuk bisitatu ditugu: ekialdeko Afrika, Nepal, Artikoa eta Amazonia. Aurten bururatu zitzaizgun ez genuela zertan helmuga zehatz batean zentratu behar, badirela ezaugarri amankomunak dituzten lekuak, eta horiek bateratu genitzakeela”. Horrela aukeratu dute basamortuaren gaia. Hasiera batean Saharak erakartzen zituela aitortu du Kikek. “Bertako Tuaret bat ekartzeko aukera genuen, gainera. Bestetik, buruan genuen Cristina Morató bidaiaria ekartzea. Oso zaila da emakume bidaiariak topatzea. Baina Cristina ekialdeko basamortuetan zehar ibili da; beraz, ez zigun Saharari buruz hitz egiteko balio. Gero, Sergio Fernandez Tolosa-ren berri izan genuen. Honek munduko zazpi basamorturik handienak zeharkatu ditu bizikletaz. Aukera bikaina zen, Saharak ez ezik, munduko basamortu ezberdinez hitz egiteko”. Beraz, munduko basamortuak ezagutu, eta bata bestearen artean dauden aldeez jabetzeko parada eskainiko du V. aldi honek. Azkenik, lekualdaketa bat ere ekarriko du aurtengoak: Tolosako Kultur Etxetik TOPIC txotxongilo zentrorra igaroko dira jardunaldiak. Bertako aretoan eskainiko dituzte bidaiariek euren emanaldiak. Denak 20:00etan hasiko dira.

Nola prestatu bidaiaria bat?

Galdera horri erantzuna aurkitzen saiatuko dira Mikel Arredondo bilbotarrak gidatuko duen tailer praktikoan. Zor-



...ea baino zerbait gehiago

tzi orduko iraupena izango du martxoaren 15, 16, 22 eta 23 egunetan banatuta. Talde finko batekin egingo da lan, gehiezin 15 pertsonakoa. "Asmoa, modu independente batean bidaiatzen ikastea da: nola lortu informazioa, segurtasuna, ekonomia, osasuna eta jarrera aldetik kontutan hartu beharrekoak e.a. Talde txikietan egingo dute lan: talde bakoitzak helmuga bat aukeratu du eta bidaia hipotetiko hori prestatzea izango da euren lana". Bidaia hori egi bihurtu edo ez norberaren esku geratuko da.

Tailerrak 20 euroko prezioa du. Izen ematea TOPICen egin behar da 943.65.04.14 telefonon edo cit@cittolosa.com helbide elektronikoan. Aipatutako egunetan 19:00etatik 21:00etara izango dira saioak.

7 basamortu bizikletaz eta bakarrik

Hilaren 17an eskainiko du bere emanaldia Sergio Fernandez Tolosak. Kazetari honek oso gaztetatik izan zuen bere jaioterria zen Bartzelonako mugetatik haratago zegoena ezagutzeko irrika. Bizikleta hartu eta munduko 7 basamorturik handienak ezagutzeko erronkari eutsi zion behin. Bost urte eman ditu bidaiatzen; guztira 30.000 km egin ditu gorpilen gainean, Australia, Atacama, Mojav, Namib, Kalahari, Gabi eta Sahara basamortuetako nomadekin bizikidetzan, parekorik ez duten paisaiak gozatzen, topatutako fauna eta florak eragindako harriduraz kitzikatuta.

Basamortu biziak?

Ez da Ander Izagirre bidaiari eta kazetari donostiarra Tolosara etortzen den lehenengo aldia. Bere bidaien berri eman izan digu lehen ere, baina oraingoan, munduko basamortu ezberdinetan aurkitutako bizitzaz hitz egingo du; hondarretan, izotzetan, gatzetan edo basaltoan bizi diren nomadez: Djibutiko karabanei, Heriotzaren Ibarreko urre bilatzaileei, outback australiarreko kolonoei, Boliviako haru meatzariei eta Groenlandiako foka ehiztariei buruz, besteak beste. Hilaren 24an izango da hori.

Nomadak: hortzimuga bizitoki

Joseph Maria Palau kazetaria eta unibertsitateko irakaslea da. Bidaietan berezitatutako free-lance bezala jardun du, bere esperientziak bidaia aldizkarietan argitaratuz. Besteak beste, "Viajes Nacional Geographic" aldizkarian idatzi izan du. Ikusentzunezkoak ere prestatu ditu telebista kateentzat. Lonely planet gidako gaztelerazko edizioan ere parte hartzen du, baita Intermon Oxfam-en marketing departamenduan ere. Oraingo honetan, aurrez aurre emango digu bere bidaien berri hilaren 25ean.


Emakume bidaiari handiak ekialdean

Martxoaren 26an, jardunaldi itxiera emateaz arduratuko da Cristina Morató idazle eta kazetari kataluniarra. 2005ean bidaiatu zuen lehendabiziko aldiz ekialdeko lurraldeetara. Bere bidaiak kontatzeaz gain, lan



izugarria egin du emakumezko bidaiarien memoria berreskuratzeke. Horien istorioak, "Viajeras intrépidas y abentureras", "Las reinas de Africa", "Las damas del Oriente" eta "Cautiva en Arabia" liburuetan argitaratu ditu. Aipatutako azkena, emakume euskaldun batek ekialdean bizitako abenturei buruzkoa da.

Amalur 2010ean parte hartuko duten hizlari gehienak idazleak izanik, antolatzaileek ahalegin berezia egin dute euren liburuak Tolosan eskuragai jartzeko. Era honetan, Babel eta Elkar liburu-dendetan aipatutako bidaiarien hainbat argitalpen jarri dira salgai. Jardunaldieta asebete gabe ateratzen denak liburu hauetan asetu ahal izango du bere egarria. www.cittolosa.com webgunean ere eskuragai izango duzue jardunaldi berruzko informazioa.



Txelo Romeo:

“Harrituta nago, apar-
kamenduen arazoa
konpontzeko eskatu
ziguten pertsona berak
baitira TAO sistema kri-
tikatzen dutenak”

Ez dira garai onak udaletxeentza-
ko. Kriaren ondorioz 2010eko
aurrekontuak aurreko urteeta-
koak baino murrizagoak izango
dira. Arazo honetaz gain, Txelo
Romeo Ibarako alkateak beste
hainbat gatazkei egin behar izan
die aurre azkenaldian. TAO siste-
ma jarri izana ez da herritarren
gustukoa izan, eta ildo honetatik
hainbat kritika entzun behar
izan ditu. Ibarako herriaren-
tzat garrantzitsuak diren gai
guzti horiez hitz egiteko
elkartu da Galtzaundi
berarekin.

Leire Zubeldia



Nola darama Ibarako udale-txeak krisi ekonomikoa?

592.000 euro itzuli behar dizkiogu ogasunari; hasieran uste genuena baino zertxobait gutxiago. Hala ere, itzuli beharreko diru hori eta jasoko ez dugun beste diru kopuru bat tarteko, milioi erdi euro gutxiago ditugu. 2010eko aurrekontuari begira eragin handia izango du horrek: gastu batzuk ezin izango dira murriztu, lehendik lotuta zeudelako; beste zenbait partida ordea murriztu egin beharko dira. Beste erremediorik ez dago. Dena den, esango nuke Ibarra nahiko ondo kokatuta sartu dela krisi egoera honetan. Badira inguruan gu baino askoz ere egoera okerragoan dauden udalak. Hori ez da kontsolagarria, noski. Ten-tu handiz ibili behar dugu, urtea gogorra izango baita.

Zein arlotan izango dira murrizketak?

Herriarentzat berebiziko garrantziarik ez duten arloetan egingo ditugu murrizketak; nagusiki diru-laguntza eta festen antolakuntzara bideratutako partidak jaitziko ditugu. Aldiz, gizarte-laguntza saila indartu egin nahi izan dugu aurtengo aurrekontuetan. Bestalde, zergen gehiegizko igoera bat saihestu dugu: zaborraren zerga soilik tasa bat igo dugu. Zerbitzu hau defizitariora da udalarentzat. Horregatik igo dugu, hain defizitariora izan ez dadin. Igoera honen ordainetan, gainontzeko zerga guztiak izoztu egin ditugu.

Murrizketen artean festak aipatu dituzu...

Nonbaitetik kendu beharra

dago. Gure ideia ondorengo da: festa egun bakoitzeko 12.000 euro baino gehiago ez dugu gastatuko. Izaskungo jaiak antolatzeke ere diru gutxiago emango dugu.

Eta herriko talde eta elkarteek diru-laguntzekin zer gertatuko da?

Izoztu egingo ditugu. Hori izango da Parrokiari, Sendi Ekintzari, Alurr dantza taldeari eta herriko ekimenetan parte hartzen duten beste elkarteek bideratzen zaien diru partiden kasua. Talde hauek euren ekintzekin jarraitu dezaten bermatu nahi dugu.

Euskara talde eta komunikabideen laguntzak ere jaitzi dituzue euskara eta hezkuntza sailaren partidarekin batera. Euskara ez da berebizikoa zuentzat?

Bai, noski. Euskarari merezi duen garrantzia ematen diogu hemen. Esate baterako, Ibarako Ikastolari, entitate pribatu bat izan arren, diru asko ematen diogu. Euskarazko komunikabideei diru laguntza murriztuko zaie, beste erremediorik ez dagoelako. Baina euskara soilik ez da diruz laguntzen. Hemen euskarazko musika proiektuak ere lagundu ditugu, baina gero inork ez du disko hori erosten eta Michael Jackson-enak eskuratzen ditugu. Ni neu euskaraz ikasten ari naiz. Aktiboan egonda ez zara ehuneko ehunetan zentratzen, baina tira, pixkanaka banoa aurrera. Gainera, ikusten dut gazte askok, euskaraz hitz egiten jakinda ere ez dutela erabiltzen.

Estatuko Fondotik bideratutako diru-laguntza zertan inbertituko duzue?

Energia aurrezteko plan bat egiten. Udaletzeko eta eraikin publikoetako sare informatikoa zaharberrituko dugu, zenbait kasutan berogailu sistema ere berrituko da eta Euskal Herria kaleko argiaren kontsumoa gutxituko dugu. Guzti hau gastuak murrizteko helburuarekin egingo da.

Urte hasieran TAO sistema jarri zenuten martxan. Zein balorazio egiten duzue izaten ari den funtzionamenduz?

TAO sistema autoen metaketa gertatzen zen tokira mugatu dugu. Atzeritarrak (ibartarrak ez direnei deitzeko era maitakorra da hau) Ibarra etortzen ziren, autoa bertan aparkatzen zuten, eta lanera abiatzen ziren beste herri batera. Jende honek ez zion ezertxo ere aportatzen herriari, soilik okupatu egiten zuen. Egiari zor, nik gauza bera egingo nuke euren lekuan. Baina praktika hori herritarrentzat arazo bat izatera iritsi da. Bizilagun eta merkatarik askok egoera konpontzeko zerbait egitea eskatu ziguten. Guk, sakon hausnartu ondoren erabaki genuen TAO sistema jartzea zela irtenbiderik egokiena. Baina sistema martxan jarri denean, hara non, arazo konpontzeko exijitu ziguten pertsona berberak hartutako neurriak kezuka etorri dira. Zer nahi dute orduan?

Asmo onez egin dugu: amona bisitatzerako datarrenak, Ibarren kafetxo bat hartu nahi duenak, edo erosketak egin nahi dituenak autoa uzteko tokia izan de-

zan, autoen mugikortasuna lortzea izan da gure ideia. Guri ez ez zaigu TAO sistema gustatzen. Ez da atsegina. Gainera, zerbitzu hau defizitariora da, beraz irabazi asmorik gabe jokatu dugu. Mugikortasuna lortzeko era bakarra da nire ustez.

Baina merezi izan du?

TAO sistema jarri den guneke bizilagunen balorazioa ez da guztiz txarra. Argi utzi nahi dugu sistema hau froga moduan jarri dugula. Inork ez dezala pentsa sudur puntan jarri zaigulako bizi guztian mantenduko dugunik. Pentsan gutun bat argitaratu zen, esanez, kasualitate handia zela TAO sistema jarritako eremuan Ibarako alkatea eta zinegotziak bizi zirela. Zer pentsatzen dute, gure arazoa dela? Hau, Ibarak duen arazoa da. Baina berriro errepikatzen dut: jendea nahiko gustura dago, batez ere gune gatazkatsuetan bizi den jendea.

Hala ere, TAO sistemaren alternatibak planteatu ditu herritar talde batek...

Alternatiba formalik ez da egon. Gainera, gauza hauek egiteko era bakarra dago: lehiaketa publiko baten bidez, udalak TAO sistema kudeatzen berezitua den enpresa bat kontratatzea, eta hauek behar den seriotasun eta eraginkotasunarekin kudeatzea. Egin behar bada, ondo egin behar da. Horretan saiatu gara gu.

Bi urteko kontratua sinatu duzue enpresa kudeatzailearekin...

Guk argi genuen lehenik eta behin froga egin nahi genuela.

Kontratua lau urtekoa da, baina 2 urte pasatzean berritu edo eten egin daiteke. Zerbitzua martxan jarri zenetik sei hilabete betetzen direnean inkesta bat egingo dugu herritarren iritzia jakin eta balorazio bat egiteko. Balorazio horretan sistemaren abantailak eta desabantailak hartuko ditugu kontutan. Denbora utzi behar zaio sistemari, jendea ez baitago Ibarren TAO-a ordaintzera ohituta.

Arazo honen harira, hainbat herritarrek salatu dute Ibarren Udalak ez duela herritarren iritzia kontutan hartzen...

Ni ez nago horrekin batere ados. Horrela pentsatzen duten

riena garajea ez duten ibartarrena zen, kalean autoa uzteko lekurik ez baitzuten. Zerbait egin behar genuela behin eta berriz esaten zigutenak herritar horiek ziren, eta baita komertzioetako arduradunak ere. Hortik nire harridura, pertsona hauek TAO sistemarekin ez-ados agertu direnean. Dena ukatzen dutenei berriz esango nieke alternatiba serio bat aurkez dezatela.

Gaiez aldatuta, eraikin balioaniztarekin lanean ari zarete. Nola doa proiektua?

Proiektua aurrera eramateko lehiaketa publiko bat deitu genuen eta LKS arkitekto bulegoak irabazi zuen. Euren proposame-

zentruaren sarrera beheko-bide-tik izango litzateke, lur zoruaren mailan. Bertako erabiltzaileek ez lukete igogailurik behar, eta gainera, orain galduta dagoen gune hori berreskuratu litzateke adinduentzako pasiorako gune bilakatuz. Jubilatuen egoitzak berriz orain kanpa dagoen gunetik edukiko luke sarrera independentea. Azkenik, gazteentzako apartamentuak daude. 32 ekipamendu dotazional izango dira, sarrera independentearekin hauek ere. 18 eta 30 urte arteko gazteei eskainiko zaie alokairuan. Alokairuaren prezioa bakoitzaren errentaren arabera izango da.

Proiektu polita iruditzen zaigu, batez ere balioanizta delako. Ibarren ez du lur askorik eraikitzeko, eta okupatzen den lur eremu bakoitzari ahalik eta zuku gehien atera behar zaio. Lanak uztaila eta iraila artean hasiko dira, eta 2012rako eraikina amaituta izatea espero dugu.

Festetako txoznak arautzeko atera duzuen ordenantzak ere hautsak harrotu ditu. Zer dela eta neurri hau?

Txoznak kenduko ditugun zurrumurrua zabaldu da. Ez da horrela. Ibarren txoznen kontua "katxondeo" hutsa izan da beti. Eta txoznen antolakuntzan dabilzan guztiek dakite hori. Baimena eskatu aurretik txoznak jartzen ziren, eta plaza guztia hartuz gainera. Gazteek bere gunea behar dute festetan; ados. Baina gazteak ez ezik, helduak eta haurrak daude, eta horientzat ere lekua utzi behar da.

Atera dugun ordenantzak

"Nahiz eta jende asko nire pentsamoldearekin eta nire ekintzekin ados ez agertu, pertsona errespetatua sentitzen naiz, baita ilegalizatuta dauden pertsona horiengandik ere".

bi baldintza bakarrik zehazten ditu: bost txozna eta ilaran jarrita. Uste dut nahikoa dela. Bestalde, leku publikoa okupatzeagatik tasa bat ere ordaindu behar dute. Dendek eta lokalek ordaintzen duten tasa bera da.

Urte bete eta hilabete batzuk falta dira udal hauteskundeetarako. Aurkezteko asmoa al duzue?

Oso goiz da horri erantzuteko. Ez naiz horretan pentsatzen jarri, eta gainera, hori alderdiak erabaki behar du.

Ilegalizatutako zerrenda batek lortu zituen botu gehien eta zuk hartu zenuen alkatetza. Zail egin zaizu egoera horretan gobernatzea?

Zerrenda hori ilegalizatuta geratu zen lege baten ondorioz. Nik sekula ez dut ilegalizazio hori ulertu, baina guk ez dugu lege hori egin.

Nik gauza bat aitortu behar daukat: batzuetan kritikak jasotzen ditugu, baina egiari zor, ez nago gehiegi kexatzeko moduan. Nahiz eta jende asko nire pentsamoldearekin eta nire ekintzekin ados ez agertu, pertsona errespetatua sentitzen naiz, baita ilegalizatuta dauden pertsona horiengandik ere.



"TAO zerbitzua martxan jarri zenetik sei hilabete betetzen direnean inkesta bat egingo dugu herritarren iritzia jakin eta balorazio bat egiteko".

guztiak oso oker dabilta. TAO sistema jartzeko ideia herritarrek beraiek eman ziguten. Arazo la-

nak besteek baino irisgarritasun maila handiagoa ahalbidetzen zuen. Era honetan, eguneko



Amaia Etxetxipia
Nutrizio aholkularia

Gure inguruan maiz entzuten ditugu metabolismoaren inguruko kontuak, galderak eta gora-beherak. Gaur saiatuko gara aztertzen zer den eta ze faktorek eragiten duten beregan.

Koxk!

Metabolismoa aldatu zait?

Metabolismoa, elikagaiek gure gorputzeko ehunetan izaten dituzten transformazio kimikoa da, digestio eta absorzio prozesuak pasa ondoren. Metabolismo honen barruan 2 erreakzio mota daude: energia lortzeko erabiltzen diren erreakzio degradatiboak alde batetik, eta bestetik, energia horren parte bat erabiliz zenbait biomolekula sortzeko funtzioa duten erreakzioak.

Eta zer da gastu energetikoa? Pertsonak kontsumitzen duen energia da, eta hau, elikagai energetikoen errekuntza metabolikoaren bitartez lortzen da.

Energia hau, modu desberdinetan kontsumitzen dugu: behar beharrezkoak diren funtzioetan erabiltzen da, arnasketan, gorputzeko tenperatura mantentzeko, bihotzeko erritmoan eta beste nahigabeko aktibitateetan. Baina, nahita egiten ditugun eguneroko aktibitateetan ere bai, telebista

ikusi, irakurri edo edozein aktibitate fisiko edo kirol egiterakoan. Pentsatzean edo lotan gaudenean ere energia kontsumitzen dugu. Baina noski, gure bizitzan zehar, egoera desberdinetan aldatuta garrantzitsuak ematen dira: haurtzaroran, haurdunaldian, laktantzian edo kirol entrenamendu batean. Gaixorik gaudenean edo sendatzen ari geranean ere gure organismoak energia kantitate handiagoa behar du egoerari aurre egiteko. Antzeko moduan, ebakuntza baten ondoren edo traumatismo baten ondoren, suspertze prozesu horien funtzionamendua egokia izateko energia gehiago beharko da. Erlazioa zuzena da: osasuna ezinhobea izateko, kontsumitutako energia, janarietatik lortzen degunarekin orekatu behar da.

Gorputzarentzat ezinbestekoak diren funtzioak mantentzeko beharrezkoa den energiari metabolismoa deitzen zaio; nahi gabe egiten ditugun

ia aktibitate guztiak dira hauek. Metabolismo hau faktore askok baldintzatzen dute:

- adina: haurrak, helduak baino handiagoa dute.
- emakumeak, gizonezkoak baino gutxiago.
- gorputzera (pisua, garaiera, azalera).
- klima.
- gorputzaren tenperatura.
- egoera animikoa.
- ...

Badira ere beste zenbait faktore, termogenesiarengan eragina dutenak (energia bero moduan barreiatzen dute): hotza, tabakoa, estresa edo zenbait farmako.

Bestalde, aktibitate fisikoa-ri dagokion gastu energetikoa dago. Honako hau, nahita egiten ditugun mugimenduei dagokion energia da (lana, kirola...). Hau da balantze energetikoa orekatzeko manipulatu daitekeena eta baita ere gastu energetikoaren frakzio aldagarriena. Hemen ere, badira eragina izango duten

zenbait faktore: aktibitate mota, maiztasuna eta abar. Elikagaiek ere, eragin termogeniko bat dute, hau da, beraien digestio eta ondorengo prozesuetarako energia behar da, eta hau, desberdina izaten da elikagai bazuetatik besteetara.

Azkenik, kontutan eduki behar dugu metabolismo hau zuzentzen erregulazio hormonal komplexu bat dagoela; honek esan nahi du, zentzu honetan edozein aldaketa ematen bada, metabolismoan eragina izango duela. Beraz, garbi dago faktore desberdin asko daudela metabolismoaren inguruan, eta ondorioz, ez da harritzekoa hainbeste desberdintasun egoitea pertsona batetik bestera; era berean, pertsona batek bere bizitzako momentu desberdinetan aldaketak nabaritu ditzake.

Martxoaren 6an Donostiako Fnac-en kontzertu akustikoa eskainiko du Jokin Larrazak.

Jokin Larrazak Inoiz baino, betirako hobe

“Inoiz baino, noizbait hobe” esan dio Jokin Larrazak bere buruari eta azkenean disko batean bildu ditu 1997 eta 1999. urte artean idatzitako kantuak. Kantu horiek desagertzeak eragingo liokeen atsekabea ekiditeko, amaitu gabeko lanaren sentsazioak bere sormen lana ez oztopatzeko, bere buruari disko bat argitaratzeko gai dela erakusteko... Arrazoi askorengatik Jok-en sinadurapean aurkituko duzue “Inoiz baino” diskoa ohiko saltokietan eta Orbela, Mescal zein Eguzki tabernetan.

Leire Zubeldia

Diskoaren azalean jarritako “inoiz baino” horri zuk zeuk ematen diozu erantzuna: “noizbait hobe”. Zure kantuak disko batean plazaratzeko beharra sentitzen zenuen?

Proiektu arraroa da, abestiak duela urte asko idatzita baitaude. Beti izan dut buruan kantu hauek grabatzeko asmoa, baina tira, denborarik ez dudalako izan, edo bizitzan beste lehen-tasun batzuk eduki ditudalako, ez da posible izan. Iaz serio jarri nintzen, eta azkenean atera da.

Urte guzti hauetan kantuak entzun eta jo dituzu?

Bai, noski. Nire abestiak neronek jotzen ez banituen hil egingo ziren. Horrek pena ematen zidan. Horregatik grabatu nahi nituen. Egia da, proiektua aurreikusitakoa baino askoz ere handiagoa izan dela. Hasiera batean, kantuak ondo grabatu nahi nituen, baina maila apalago batean.

Zure belarrietara aldatu al dira?

Konposizio eta letra aldetik bere garaian ziren bezala errespetatu ditut kantuak. Askotan jo izan ditut kantu hauek, eta orain bat-batean estruktura aldatzeak ez zuen zentzurik. Kontua da, estudioan sartzeko musikari ezberdinez inguratu naizela; bakoitzak bere ekarpena egin du. Honenbestez, abestiak berdinak izan arren emaitza guztiz ezberdina da.

Hitzen aldetik, egia da gaur egun ez nituzkeela idatziko orain dela hamar urte idatzitako letrak. Baina nire bizitzako etapa bat izan zen hura, eta hori ere errespetatu egin nahi izan dut.

Bederatzi kantu dira, oro har, lasaiak, eta beti zure ahots melodikoa kantuetan nagusi den kitarraren azpitik... Horiek al dira zure musikaren ezaugarriak?

Kantu lasaiak dira eta kutsu intimista dute, hori argi dago.

Kantautoreekin gertatzen da, ahotsa asko destakatzen dutela. Nik talde grabaketa bat egin nahi nuen, eta ahotsa beste instrumentu bat gehiago balitz bezala hartu dut. Horregatik ez da nabarmentzen. Nahita egingo dako gauza izan da.

Abestiak definitzea berriz zaila egiten zait: Pop-Rock-era jo dezakete. Bere garaian Brunch estiloa gustatzen zitzaidan, eta agian horren ikutuak ere somatu daitezke.

Nolako izan da diskoa grabatzeko erabakia hartu zenuenetik “Inoiz baino” argitaratu arteko bidea?

Hasiera batean Bonberenean grabatzeko asmoa nuen. Bertara jo nuen Patxi Muñoarengana. Esan nion diskoa ez nuela kantautore gisa grabatu nahi, banda bat nahi nuela. Berak Xabi Strubell proposatu zidan. Berarengana joan nintzen. Abestiak erakutsi nizkion, eta gustatu egin zitzaizkion. Zurako bateria, Eñaut, ere animatu egin zen. Hiruok ibili ginen hilabete batzuetan zehar abestiak entsaiatzen. Grabatzeko garaia iritsi zenean, Bonberenean lanez lepo zebiltzan. Orduan, Oiarzunen, Iñigo Campos-ekin grabatu genuen. Guzti horretaz gain, Juantxo eta Xabi Zeberio hiru kantutan parte hartzen dute.



Esperientzia handiko musikariek sartu zara estudioan. Zer aportatu dizu horrek?

Lasaitasuna, ziurtasuna... Horrelako jendearekin estudioan sartzea luxu bat da. Emaiztan bertan ere ikusten da euren ekarpena. Nire ustez oso polita geratu da. Oso gustura nago.

Gaur egun sortzen jarraitzen al duzu?

Kantu hauek grabatuta ez izatea balazata moduko bat izan da kantu berriak sortzeko garaian. Nolabait, amaitu gabeko lan hori zama bat zen nire sormenarentzat. Orain diskoa kalean dela, berriro ere kantuak idazten hasi naiz. Nire buruari frogatu diot disko bat grabatzeko gai naizela, eta horrek sortzen jarraitzeko ilusioa eman dit.

Ordutik hona zure musika aldatu da?

Bai, noski. Hamabi urtetan musika asko pasa da nire belarrietatik. Influentziak beti hor daude. Ez nuke jakingo zertan aldatu den esaten, baina eboluzio bat egon da, entzundako musikak eta adinak eraginda.

Oholtza gainean ikusiko zaitugu aurrerantzean?

Diskoaren aurkezpenaren inguruan GKO Galleryn eta Hondarribian kontzertu bana eskaini dugu. Baina grabaketan parte hartu duten musikariek euren proiektuak dituzte. Nire asmoa, udarari begira Tolosaldeko musikariek taldetxo bat egin eta diskoa defenditzea da.

Barruan sentitzen zenuen behar hori asetuta geratu al da?

Nire helburua kan-

tuak grabatu eta betirako hor geratzea zen. Hori bete dut, eta pentsatzen nuena baino hobeto gainera. Jendearengandik jaso ditudan erantzunak berriz positiboak izan dira. Nire ustez erraz entzun daitekeen diskoa da. Ni pozik nago.

Lehenengoakalean edukita, bigarren bat grabatzea pasa al zaizu burutik?

Bai. Ni gazte sentitzen naiz, eta gainera, nire buruari frogatu diot guzti hau egiteko gai naizela. Ez dakit hemendik bi, hiru, lau edo bost urtera, baina materiala daukadanean, animatuko naiz. ☺



URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa


GORRI

Paper manipulaziorako
makina eraikuntza

Konponketa
eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
.blogspot.com

**ZABALA
DESGUAZEAK**
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

Euskal Herriko zirkuituan iazkoa hobetzea eta distantzia luzeko probeetan lan txukuna egitea da TTT-ren helburua

2010, distantzia luzeare

Ilusio handiz hitz egin dute Aitor Elduairen eta Iñaki Insausti, Mahala Tolosaldea Triatloi Taldeko kideek, 2010. urteko denboraldiaz. Otsailko azken asteburuarekin batera hasi zen aurtengo duatloiaren festa. Taldekideak gogor prestatu dira urteko lehenengo froga hauetarako, baina maiatzetik aurrera martxan jarriko den triatloi denboraldian dute gogoia jarrita; eta aurten bereziki, distantzia luzeko probetan erakutsi nahi du TTT-ek bere elastiko urdina.

Erredakzioa

“Dagoeneko, distantzia motzean ez gara kabitzen!”, esan dute erdi txantxetan. Iaz Euskal Herriko zirkuituan lortutako emaitza onek, eta bereziki, taldean daukaten giro onak motibatuta, taldekide askok distantzia luzeko probetan parte hartuko dute. “Apirila amaieran taldekide batzuk Kataluniara joango dira Banyoles-eko triatloia egitera; pare bat lagun Lanzaroten izango dira; Nizara joateko asmoa duenik ere bada; eta Bolton-go ironmanean ere izango da TTT”. Guztira, distantzia luzean

arrituko diren 9 taldekide zenbatu dituzte. “Iaz hiru pertsona izan ziren tamaina honetako probaren bat egin zutenak, eta izugarria iruditzen zitzaigun”, jakinarazi du Iñakik, “inoiz distantzia luzeko probaren bat egin duen 12 pertsona inguru egongo dira eskualdean, eta begira: urte betean kopuru hori bikoiztu egingo da ia”, gehitu du Aitorrek. Esan liteke beraz, 2010a distantzia luzeko proben urtea izango dela.

Iñakik berak ere egina du distantzia honetako triatloi bat. Bere hitze-




n urtea

tan, proba hauek ez dute Euskal Herriko zirkuituan jokatzeko distantzia motzeko lasterketekin zerikusirik. "Beste erronka bat da. Dena da ezberdina. Irteera lerroan zauden momentuan profesionala bazina bezala sentitzen zara. Dena da handiagoa. Bizi egin beharra dago".

Talde izaera

Proba luzeei begira egiten ari diren prestaketak distantzia motzean ere aurrean ibiltzeko aukera ekarriko duela uste dute bi triatleta gazteek. Izan ere, etxean ondo aritzeari ere garrantzia handia ematen dio Tolosaldeko Triatloi Taldeak. Ildo honetatik, gutxienez iaz lortutako emaitzak berdintzea dute helburu: "Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketan hiruna talde atera genituen. Horietako bat bigarren sailkatu zen Gipuzkoakoan eta hirugarren Euskadikoan. Horretaz gain, beste proba batzuetan lehenengo hiruetan sar-

 "inoiz distantzia luzeko probaren bat egin duen 12 pertsona inguru egongo dira eskualdean, eta begira: urte betean kopuru hori bikoiztu egingo da ia".


tzeta lortu genuen". Taldeka erdietsitako emaitza hauei esker, Mahala Tolosaldea Triatloi Taldeak prestigioa eta errespetua irabazi du zirkuituan.

Baina uzta jasotzeko hazia erein behar da. Elastiko urdinekoek giro bikaina dute beraien artean. "Motorra hori da. Gure arteko giro horrek bultzatzen zaitu probetara joatera. Ez daukagu motibazio ekonomikorik, ez daukagu obligaziorik. Ilusioak eragiten digu, taldearen helburuak lortzeko irrikak".

2008ko denboraldian hitz egin zuen Galtzaundik azkeneko aldiz Tolosaldeko

triatletekin. Garaitxu horretan ekin zion TTT-ek garai berriari. Ordutik hona, taldea finkatzea lortu dute. "Pixkanaka, ilusio puntu bat sortzea, talde giroan jendea gero eta gehiago inplikatzeko eta proba gehiagotan parte hartzeko aukera eman digu egonkortasun horrek". Guztira 35 lagun inguru daude taldean. Horien artean neska bakarra dago. Emakumezkoen kopurua haztea ere denbora kontua izango da, jasotako emaitzek eta taldeko giro bikainak indar erakarle handia baitute.

Maiatzak 8, duatloi herrikoia

Lehiaketan lan txukuna egiteaz aparte, badu beste zereginik TTT-ek. Bere ardura izaten da Jabier Urkolaren Omenezko Duatloi Herrikoia antolatzea. Aurtengoan 8an izango da. Azken edizioak izan zuten erantzun aparta ikusita, aurtengoan ere giro bikaina sortuko dela aurreikusten dute. 

ZETA^S_L

**MUNTAKETA
ELEKTRIKOAK**

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219



**ARTE
TAILERRA**

HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa, margoak, eskultura.

Larrugintza ikastaroa helduentzako
Bozetadao, patronajea eta larruzko tiraz josia.
Iraupena: 20 ordu

Datak
Martxoaren 3tik maiatzaren 5era. asteazkena 17:00etatik 19:00etara.
Prezioa: 160 euro

Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tlf. 677 340 685

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

irakurri entzun Ikusi

Bi marra arrosa Jasone Osoro




Bi marra arrosekin hasten dena liburuaren hasieran, Duna bihurtzen da beronen akaberan. Hauxe da Jasone Osorok kontatzen duena liburu honetan, bere lehen alabaren haurdunaldia, alegia. Dirudienez, bederatzi hilabete inguru horietan zehar egunkari bat idatzi zuen bere aldaketa fisiko eta psikologikoen berri emanez, bere burutazioak esplikatu, eta horren ondorioa da gure eskuetaraino heldu den testigantza. Horrena eta bizitza berri baten sortzearena.

Fleet Foxes Fleet Foxes



Seattleko boskote honek bere musika "pop abesti armoniko eta barrokoak" bezala definitzen du. Beraien lehenengo album hau 2008ko uztailean argitaratu zen, oso kritika onak jaso zituelarik, gehien bat ahotsen erabilera eta abestien hitzengatik. Rolling Stone aldizkari ospetsuak, esaterako, lau izar eman zizkion talde honi. Disko ederra azaleko iruditik hasita.

Shutter Island Martin Scorsese



Teddy (Leonardo Dicaprio) agente judiziala Shutter Island-era joango da, bertan dagoen gaizkile trastornatuen erietxean gertatutako desagertu bat ikertzera. Baina Shutter Island-era joaten denak ezin du handik atera. Ziur zaude sano zaudela? Edo zalantzak berak erotuko zaitu? Film psikologiko indartsua da Scorseseren azken lana.

Martxoaren 5etik 19ra arteko hitzordduak

Erakusketa

Aranburu jauregia

- Apirilak 10era: "Aurrez aurre - Emakumeak protagonista" erakusketa interaktiboa.

Zine Forum

Leidor

- Martxoak 8: "Fraulen" filma jatorrizko bertsioan, 20:30ean.
- Martxoak 11: "Gertrud" filma jatorrizko bertsioan, 19:15ean eta 21:45ean.
- Martxoak 19: "Mi vecino Totoro" filma jatorrizko bertsioan, 19:30ean.

Zinema

Leidor

- Martxoak 5: "Un novio para Yasmina", 22:30ean.
- Martxoak 6: "Un novio para Yasmina", 22:30ean.
- Martxoak 7: "Polleke" haurrentzako filma, 17:00etan. "Amerrika" 19:30ean eta 22:00etan.
- Martxoak 13: "Cheri" filma, 19:30ean. "La Carretera", 22:30ean.
- Martxoak 14: "Percy Jackson" haurrentzako filma 17:00etan. "La carretera" filma, 19:30ean eta 22:00etan.

Ikuskizunak

LEIDOR

- Martxoak 6: Pirritx Porrotx eta Marimotots-en "Irrien lagu-

nak" ikuskizuna, 16:30ean eta 19:00etan.

- Martxoak 12: "Una noche con Gabino" ikuskizuna Gabino Diegoren eskutik, 20:30ean.
- Martxoak 18: "May Gorostiaga? Presente!" emanaldia May Gorostiagaren eskutik 20:30ean.

TOPIC

- Martxoak 5: "Internet Café" emanaldia Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberen eskutik, 20:30ean.
- Martxoak 13-14: "Erreka Mari" txotxongilo taldea, 17:00etan eta 12:30ean hurrenez hurren.
- Martxoak 18: "May Gorostiaga? Presente!" emanaldia May Gorostiagaren eskutik 20:30ean.

Amarozko merkatu txikia


Tolosako Kultur Etxea

- Martxoaren 10etik 14ra bitartean: arropa, liburuak, jostailuak, altzariak... eskuragai.

Amalur Jardunal- diak 2010

TOPIC

- Martxoak 15, 16, 22 eta 23: "Nola prestatu bidaia bat?" tailerra Mikel Arrondoren eskutik.



19:00etatik 21:00etara.

- Martxoak 17: "Zazpi desertuak", jardunaldia Sergio Fernández Tolosaren eskutik, 20:00etan.
- Martxoak 24: "Basamortu bi-ziak?" hitzaldia Ander Izagirre- ren eskutik, 20:00etan.
- Martxoak 25: "Nomadak: hortzimuga bizitoki" hizaldia J. Maria Palauren eskutik 20:00etan.
- Martxoak 26: "Bidaiari handiak ekialdetik", Cristina Moratóren eskutik, 20:00etan.

Ahoz aho 2010

- Martxoak 6: "Kandelen argipean" emanaldia El Oraculo del Cuentoren eskutik. Triangulo plazan. 11:30ean.
- Martxoak 11: Ixabel Millet-en emanaldia Ordiziako Urdaneta eskolan 10:00etan eta Ordiziako Jakintza Ikastolan 11:15ean. Ana Griot eta Jhon Ardilaren saioak Tolosako E.P.A. zentruan 16:00etan. Iñaki Carreteroren ikuskizuna Amarotz auzoan 18:00etan. Mercedes Carrion eta Jerman Argueta Tolosako San Esteban auzoan 19:30ean. Ana Torrellas eta Mariano Martinez Andoaingo itzalagunean 19:30ean.
- Martxoak 12: "Kandelen argipean" emanaldia Ordiziako

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskauldeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

| Ikastaroaren izena | Hasiera data | Ordu Kopurua |
|--|--------------|--------------|
| Gazteentzako antzerkigintza tailerra | 2010/03/08 | 30 |
| PLC-en arteko komunikazioak (PROFIBUS DP) | 2010/03/08 | 30 |
| CNC sarpen bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa | 2010/03/08 | 30 |
| ACS eta Berogailurako Eguzkiko Energia Termikoko instalazioen kalkulua eta muntaia | 2010/03/08 | 30 |
| GIMP I y II | 2010/03/15 | 8 |
| Internet + e-administrazioa ikastaroa | 2010/03/15 | 20 |
| Ontzien diseinu eta ekodiseinua | 2010/03/16 | 30 |
| Nazioarteko sukaldaritza: Japonia eta Asiatik hego-mendebaldea | 2010/03/17 | 16 |
| Mundua Gaur Egun., Nazioarteko gaurkotatua. Tailerra. | 2010/04/12 | 20 |

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Teléfono: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Urdaneta eskolan 10:00etan eta Jakintza Ikastolan 11:15ean. Ixabel Millet-en saioa Tolosako Amartz auzoan 18:00etan. Jhon Ardila eta Jerman Argueta Andoaingo itzalagunean 19:30ean. Gabino Diegoren emanaldia Tolosako Leidor aretoan 20:30ean. Ahozkotasunaren gala nagusia Ordiziako antzokian 22:15ean. Mariano Martinez Billabonako Obaba tabernan 23:00etan.

- Martxoak 13: "Kandelen argipean" ikuskizuna Tolosako Bonberenean 11:30ean. Mercedes Carrion eta Jerman Argueta Ordiziako Barrenan 18:00etan. Ahoz-aHIP-ahoz-aHop rap ikuskizuna Tolosako kultur etxean 18:00etan. "La voz de la libertad hitzaldia Andoaingo Itzalagunean 18:00etan. Ana Griot eta Jhon Ardila Tolosako San Esteban auzoan 19:30ean. Ipuin txikien gala Adunako Asvinenean 22:30ean.

-Martxoak 14: iñaki Carretero Bonberenean 11:30ean. Ana Torrellas eta Marlano Martinez Ordiziako Barrenan 12:00etan.

Musika

Bonberenea

- 5 ostirala. Agoraphobia eta Elbereth. 22.30h.
- 6 larunbata. Bizardunak eta Electric Riders. 22.30h.
- 12 ostirala. Naut, Luz de Putas eta Alambrada. 22.30h.
- 13 larunbata. Estricalla eta Freak Kennedys. 22.30h.
- 18 osteguna. Nongua Jazz eta Kakauete. 22.30h.
- 19 ostirala. 121db eta Lauroba. 22.30h.

Goardiako farmaziak

| | | |
|--|--|--|
| Ostirala, 5 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa | Asteazkena, 10 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa | Astelehena, 15 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa |
| Larunbata, 6 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa | Osteguna, 11 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa | Astearte, 16 Ugarte M ^T . Euskal Herria, 46 Ibarra |
| Igandea, 7 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa | Ostirala, 12 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra | Asteazkena, 17 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa |
| Astelehena, 8 Ugarte M ^T . Euskal Herria, 46 Ibarra | Larunbata, 13 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa | Osteguna, 18 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa |
| Astearte, 9 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa | Igandea, 14 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa | Ostirala, 19 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa |

Telefono interesgarriak

| | | |
|--|---------------------------|-------------|
| Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur | Gernikako Arbola,hitzor | 943 006 900 |
| Osasun zentroa | Amarozko dispensarioa | 943 672 637 |
| Altzo | Asunzion klinika | 943 675 799 |
| Medikua | (Iarrialdia) | 943 675 390 |
| Anoeta-Alkiza-Hernalde | San Kosme San Damian | |
| Medikua | geriatrikoa | 943 672 932 |
| Baliarrain | Udaltzaingoa | 943 675 858 |
| Medikua | Ur eta Argia (Tolargi) | 943 650 016 |
| | Ur zerbitzuak (aberiak) | 639 352 156 |
| Berastegi-Elduain | Iurreamendi egoitza | 943 670 325 |
| Medikua | Larrialdia, Suhiltzaileak | 112 |
| Bidegoian | DYA | 943 672 536 |
| Medikua | Gurutze Gorria | 943 674 888 |
| Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu | | 943 651 425 |
| Osasun etxea | Ertzantza | 943 673 022 |
| Ikaztegieta | Tolosa Gasa | 943 675 320 |
| Medikua | Lizartza | |
| Irura | Medikua | 943 682 077 |
| Osasun zentroa | Orendain | |
| Tolosa | Medikua | 943 655 595 |
| Anbulatorioa, Iarriald. | Orexa | |
| San Esteban, hitzordua | Medikua | 943 682 228 |

Galtzaundi 319
10eko martxoak 5



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA



Laskorain kalea · TOLOSA
Tel.: 943 652 618



**ARALAR
KIROLAK**

Laskorain, 7 · TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

lana

• Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, 680 983 527

• Ingeleseko klaseak ematen dira, bakarka edo taldean, maila desberdinak. Irakasle titulu-duna. 664.160.268

Etxebizitza

• Etxebizitza salgai izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699.806.631

“Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125”

• Etxebizitza abuhardilalatu salgai Montezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzkitsua eta bista onak. 685.765.855

Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

• Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

Horoskopoa

Martxoaren 5etik 18ra bitarteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Pentsatzea ona da, baina gehiegi pentsatzeak kaltea besterik ez dizu egiten. Zu bakarrik nahikoa zara nahasteko. Utzi zaitez eramaten, errazagoa da. Giharretako mina tentsioa dela eta.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Ezpata eta paretaren artean aurkituko zara eta ez duzu jakingo zeren alde egin. Horoskopoak zure ideiekin koherente izatea proposatzen dizu. Horrela, inork ezingo dizu ezertxo ere leporatu.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Bion arteko pasioaren garra apalago somatuko duzu. Ez kezkatu, ez da eta munduaren amaiera. Egokiena elkarri sentitzen duzuen kontakutza da eta bien artean pasio hori berreskuratzeko ekimenak martxan jartzea.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Estresak itota sentituko zara hurrengo asteetako gehiegizko lan kargaren ondorioz. Lehentasunak jarri eta hainbat ekintza baztertu beharko dituzu denbora batez.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Ez dira zure urtebetetzeak baina opari bat jasoko duzu. Opari hori ez da materiala izango. Zure gertuko pertsona baten eskutik etorriko da ezustekoa. Keinua ongi eskertzea garrantzitsua izango da.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Bizitzari buruz hausnarketa sakonak egitea egokituko zaizu. Lagungarria egingo zaizu zure erreflexioak konfidantza duzun pertsona batekin elkarbanatzea. Kezkak tripak nahastuko dizkizu.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Beti zara kakatia aurrera pausoak eman behar direnean. Bada, batzuetan ez da beste aukerarik egoten. Zuk ikusi: orain edo inoiz ez. Lagun bat zure adiskidetasun keinuen behar-rean dago.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Bere eskuetan dagoen txotxongilo bat zara. Zure kabuz pentsatu eta erabakiak hartzen ikasi behar duzu. Arazo ekonomikoak lanean, eta horren ondorioz giro txarra.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Aspaldiko maitasunak gogora etorriko zaizkizu egun hauetan. Nostalgia hori maitasun beharrea sentitzen zarelako azaleratu zaizu. Eska iezaitozu maitasuna eta emango dizu.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Zure bikotearengandik proposamen ero bat jasoko duzu. Lotsa emango dizu alde batetik, baina esperientzia berri horrek biziberritu egingo zintuzke. Zuk ikusi.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Errebisatu diru kontuak, zure kalterako zuloren bat egon daiteke. Bestalde, aspaldiko lagun baten bisita jasoko duzu, eta horrek gazte denborako oroitzapenak berpiztu. Nostalgiaz betetako egunak izango dira ondorioz.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Jarrera oker batengatik ez duzu kontzientzia lasai edukiko. Urduri ibiliko zara eta humore triste horrek ingurukoekiko duzun harremanetan eragin dezake. Dei misterioitsuak mugikorrean.

Hiria bertsoetan lurren!





**Jose Luis
Belloso
Estudio
de Interiorismo**

Plaza Trinkete, 3 bajo · 20400 Tolosa
T 943 67 52 48 F 943 67 34 58
www.joseluibelloso.com

- Proyectos de decoración
- Dirección de obra
- Amueblamiento
- Reforma de locales y viviendas



*Etxegintza
Fatxadak
Teilatuak
Baserri zahar berrikuntzak
Etab*

URKIBI ERAIKUNTZAK S.L. Gudari kalea, 18-3 · 20400 Tolosa · 661 951 089 - 629 427 053



Berezitasunak

Enpapelatua • Trapeatua • Glaseatua • Estukatua
• Ume muralak • Fatxadak • Pintura orokorrea

Larramendi kalea 3 E-1. M • Telf. 943 672 248 • 670 420 380



Bertako sagarrarekin
egindakoa

Larre-Gain baserria, Ereñozu Auzoa. 20.120 Hernani - Tel. 943 55 58 46 - Fax. 943 55 58 46

martxoaren 24an

E²

euskaratik
eta euskaraz

martxoak 24,
Galtzaundi Euskara Taldearen urteko batzarra
Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian, arratsaldeko 19:30ean



galtzaundi
euskara taldea

Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943 655 004